

Seguruenik,
noiz edo noiz, izan duzu
printzesaren bat ondoan.

Agian ez zinen konturatu
momentu horretan
ez zeukalako **koroa** soinean.

Egiatan, zuk imajinatu baino **printzesa**
gehiago **existitzen dira**.

Liburu honetan aurkituko duzu
sekretu garrantzitsu bat
eta ezagutuko dituzu...
gaur egungo printzesak.



ISBN: 979-13-88132-06-3 www.nubeocho.com



Gaur egungo PRINTZESAK

Luis Amavisca Dolores Brown Sonja Wimmer



Luis Amavisca & Dolores Brown

Gaur egungo PRINTZESAK

Sonja Wimmer-ek ilustratua

*Nire amari, berdintasunean hezi eta injustiziarekiko begiak ireki zizkidanari. Milesker.
Nire amona, nire arreba Cristina eta nire arreba lagun Agatha eta Jessicari.
Nire konfiantzazko lagun-minei, nire konplizeei, berdintasunean sinesten duten guztiei.*

Luis Amavisca

*Lola, Hana, May, Lina, Dima, Matilde, Mili, Mer,
Blu Jeny, Chela, Tiziana, Mar, Susanna, Rima eta Elenari.*

Dolores Brown

*Luna, nire ama, Dani, Astrid, Annerose, Graciela, Maru, Fernanda, M^a Ángeles,
Juana Marie, Sandra, Begoña, Rebeca, Sophia, Doris, Eva, Wilma, Uschi, Gabi,
Heike, Marion, Susanne, Penelopa, Vroni, Crisztina, Patricia, Ana, Rosi eta Robini;
nire alemaniar eta argentinarrak emakumeei eta Bartzelonako dama guztiei.*

Sonja Wimmer

é

É G A L I T È

Gaur egungo printzesak

Egalité bilduma

© testuarena: Luis Amavisca eta Dolores Brown, 2018-2026
© irudiena: Sonja Wimmer, 2018-2026
© argitalpenarena: NubeOcho, 2018-2026
© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Princesas de hoy en día*

Lehen argitalpena: Apirila, 2026
ISBN: 979-13-88132-06-3
Gordailu Legala: M-5232-2026

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta lan honen kopiaketa.

Gaur egungo PRINTZESAK



Luis Amavisca & Dolores Brown

Sonja Wimmer-ek ilustratua


nubeOCHO

Agian,
printzesei buruz pentsatzen duzunean
aspaldiko ipuinetako
gaztelu eta istorioak imajinatzen dituzu.

Begiak segundu gutxi batzuez itxiz gero,
agian maitagarritz inguratuta
ikusiko dituzu. Beharbada
herensugeak daude gertuan,
edo akaso sorginak.

Baina, uste al duzu printzesak
iraganeko kontua soilik direla?



Seguruenik,
noiz edo noiz, izan duzu
printzesaren bat ondoan.

Agian ez zinen konturatu
momentu horretan
ez zeukalako **koroa** soinean.

Akaso zure bizilaguna **printzesa** bat da,
edo akaso zure eskolako **lagunen** bat...

Agian zure **amona**
edo zure **ama** ere printzesak dira!

Gaurtik aurrera
zuk uste baino askoz **printzesa**
gehiago daudela deskubrituko duzu.

Goazen batzuk **ezagutzera!**





Izena: Ana printzesa

Adina: 32 urte

Lanbidea: medikua

Atsegin du: euripean ibiltzea
eta egun hotzetan txokolate
beroa edatea.

Bazen behin printzesa bat,
larrialdietako mediku izatea amesten zuena.

Ana printzesak asko ikasi zuen, ahalegindu zen...
Eta azkenik, lortu zuen. Gaueko txanda duenean,
printzea bere zain esna egoten saiatzen da. Baina tarteka lo geratzen da.

Bazen behin printzesa bat,
antzerkia eta poesia maite zituena.

Rita printzesari biziki gustatzen zaizkio
Gloria Fuertes eta Gabriel Mistral-en olerkiak.

Printzesak, eskolako antzerki-taldeko
emanaldietan antzeztean,
irribarre egiten du **txaloen** aurrean
eta **publikoa** agurtzen du.



Izena: Rita printzesa

Adina: 11 urte

Handitzean izan nahi luke:
Aktorea

Atsegin du: metroan bere
pailazo sudurra janztea eta
zinema eta antzokira joatea.

No F

136



Izena: Beatriz printzesa
Adina: 43 urte
Lanbidea: ileapaintzailea
Atsegin du: izaki
fantastikoen bila basoan
paseatzea eta mozorrotzea.

Bazen behin

printzesa bat, bikoterik
nahi izan ez zuena,
baina **ama** izatea
desio izan zuena.

Printze txikiak
Daniel du izena.
Biziki maite du
bere **amarekin**
mozorrotzea, **Beatriz**
printzesarekin.

Aitarik ez ote duen
galdetzen diotenean,
berak erantzuten du
printzesa pirata
den ama bat duela. Eta
hori **berebizikoa** da!





Izena: Leila printzesa

Adina: 39 urte

Lanbidea: arkitektoa

*Atsegin du: urpekaritza eta
itsas azpian argazkiak egitea.*

Bazen behin printzesa bat,
etxe eta eraikinak **diseinatzea** maite zuena.

Leila printzesak beste **arkitekto** batzuekin
batera egiten du lan estudio batean.

Larunbat batzuetan **lan egitea** egokitzen zaio, eta bere
alaba eta semeak bere **aitarekin** geratzen dira etxean.